# Zumaia

# ZUMAIA zurekin

Zumaiako Uri Buru Batzarra

EAJ-PNV Eusebio Gurrutxaga 6 20750 Zumaia Tfnoa 943 861488

# HEMEN
denok dugu lekua




# U
cabemos todos




## etorri festara

Zumaiako alkatetzarako hautespenaren eta hauteskunde programaren aurkezpenera.

ZAI GAITUZU:

- maiatzaren 18an, ostirala.
- 19:00etan.
- Beheko Plazan.

eman botoa
vota

EAJ PNV

w w w . z u m a i a p n v . c o m

## ven a la fiesta

A la presentación de la candidatura y del programa para la alcaldía de Zumaia.

TE ESPERAMOS:

- el día 18 de mayo, viernes.
- a las 19:00 horas.
- Beheko Plaza.

EAJ-PNV Julio Urkijo kalea 6, 20720 AZKOITIA 943 85 85 85 eajazkoitia@eaj-pnv

## 2003-2007



# Emandako hitza bete dugu

## 2007-2011



# Berriro ere esandakoa egingo dugu...

EGI eusko gaztedi

**...eta zurekin egin nahi dugu**
**www.zumaiapnv.com**

EAJ PNV

# Lo dijimos y lo hemos hecho

EAJ PNV

**En 2003 nos senfrentabamos a grandes retos en el ayuntamiento de Zumaia. Durante cuatro años hemos trabajado día a día para materializar cada uno de los puntos del programa que habíamos trazado.**

**En síntesis, podemos ofreceros un balance satisfactorio, que nos permite mirar hacia el futuro con entusiasmo.**

Mª Eugenia Arrizabalaga como alcalde, Asier Esnal, Manu Zubia, Lide Amilibia y Mikel Olaizola, como concejales en el Ayuntamiento de Zumaia.



## Balance 2003-2007

### CULTURA

- Habilitar partidas para la rehabilitación integral de la Alhóndiga.
- Rehabilitación de los sótanos de Foronda
- Catalogación de los libros de Actas para Archivo Histórico.
- Convenio con Eusko Ikaskuntza para la fototeca municipal.
- Obras de mejora en Ubillos.
- Amplia programación cultural en colaboración con las asociaciones.

### EDUCACIÓN Y JUVENTUD

- Talleres ocupacionales: soldadura y calderería. Programa Auzolan.
- Adquisición de suelo para la construcción de nuevo centro escolar en Oikia.
- Nuevas ofertas de actividades desde la Gaztetxola. Aumento del número de niños en las colonias abiertas. Nuevas ofertas desde la Ludoteka municipal.
- Colaboración y coordinación con todos los centros escolares.

### SERVICIOS GENERALES

- Jardines, baños públicos, mejora de la iluminación, parques infantiles, calmado del tráfico, aparcabicis, duchas, arbolado urbano etc.
- Campañas de reciclaje, garbigune, día sin coche, día del árbol.
- Mas frecuencia en la recogida de aceites usados, recogida de voluminosos puerta a puerta, incremento del número de contenedores y papeleras.

## lo prometido

### URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE

- Compra de terreno en Basustagaina . Construcción y adjudicación de viviendas de VPO y tasadas en Puntanueta. Adjudicación de VPOs en Etxe-Ona.
- Medidas de rehabilitación del Casco histórico: Remodelación del Ayuntamiento. PERCO: nuevas luminarias, mejora del adoquinado.....
- Plaza Eusebio Gurrutxaga- Odieta: redacción del proyecto de renovación .
- Variante de Zumaia en ejecución.
- Concluida la primera fase de la red de Bidegorris.
- Apertura y consolidación de Algorri (Centro de Interpretación)
- Agenda 21: aprobar el plan de acción, entrar en Udalsarea, agenda 21 escolar. Especial atención con los vertidos contaminantes y medidas de mejora ambiental: Galvanizados Olaizola, traslado de Ortiz, Fundiciones TS.

### SERVICIOS SOCIALES

- Branka ( Centro de recursos Sociales): centro de día con 20 plazas, 16 apartamentos tutelados, locales para grupos y Servicios Sociales de base.
- Primera piedra de nuevo centro gerontológico.
- Obras del nuevo ambulatorio en marcha.
- Eliminación de barreras urbanísticas y arquitectónicas en edificios públicos.
- Nuevo técnico de inserción laboral. Información y atención a inmigrantes.
- Gran incremento de las ayudas a la Cooperación internacional alcanzando el 0,7% del presupuesto del Ayuntamiento.

### EUSKARA

- Desarrollo de EBPN. Programas para llevar el euskara a los distintos ámbitos de la sociedad.
- Cuidar el paisaje linguistico, subvenciones para aprender euskara.
- Nuevo técnico para impulsar la normalización linguistica.
- Beca sobre toponimia y sobre el euskara de Zumaia.

### DEPORTES

- Obras en el polideportivo y en Itsas kiroldegia..
- Aprobación del Proyecto de Ejecución del frontón largo y el inicio de las obras en espera de la construcción del talud de la variante.
- Importante incremento de las subvenciones deportivas.

### TURISMO Y COMERCIO

- Nuevos folletos, inserciones en medios de comunicación, presencia en ferias.
- Información sobre los alojamientos existentes, impulsar la creación de nuevos alojamientos.
- Adecuar paseos: información sobre distancias, baños públicos. Nuevas visitas guiadas
- Organización de campañas en colaboración con la asociación de comerciantes y hosteleros.

## más alla de lo prometido

### NO ESTABAN PREVISTOS EN EL PROGRAMA PERO...

- Haurreskola pública de Aita Mari
- Frontón de la Herri Eskola
- Programa Izartu para la rehabilitación de Odieta.
- Habilitación de financiación y redacción del proyecto para la rehabilitación integral de Jadarre.
- Proyecto y financiación para la pasarela peatonal.
- Mejora en el trazado de la variante.
- Parque solar en el tejado del polideportivo.
- Entrar en la red de bibliotecas de Euskadi.
- Nuevos pantalanes para el servicio de pasaje.
- Obras en la Residencia San Juan.
- Plazoleta de la Ahóndiga.
- Nuevo Juzgado de Paz.
- Nueva Gaztexola
- Obras de reconstrucción de Torreberri.
- Subvenciones de fachadas
- Redacción del proyecto del parking subterráneo.
- Parque de Alai.
- Plan de movilidad sostenible.
- Pasarelas de madera y nueva cantina en la playa de Santiago.
- Baños en el Centro Social.
- Comedor escolar en Oikia.
- Skate Park.
- Recuperación de los cañones.
- Rehabilitación de la Cofradía.
- Gradas del campo de fútbol.



# MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA

**Zumaiako alkatetzarako hautagaia**

"BALIABIDE PUBLIKOAK KUDEATZEN DITUGUNOK OSO GARBI IZAN BEHAR DUGU LEHENENGO AINTZAT HARTU BEHARREKOAK PERTSONAK DIRELA"

**Azken lau urte hauetan proiektu garrantzitsuak gauzatu dira, datozen urteetan gauzatuko diren beste hainbat martxan jartzeaz gain. Zumaia hobetzen jarraitzeko borondate tinkoa du.**

Azken lau urte hauetan ekipamendu aldetik jauzi handia eman da Zumaian, herriko kolektibo ezberdinen beharrak asetuz. Hor daude Branka Gizarte Baliabideen Zentroa, Haurreskola, Gazte Lokala, Herri Eskolako pilotalekua... Gizarte politika sendotzea izan al da legealdi honetako lehentasun nagusia?

Gizarte politika denean da oinarrizkoa. Baliabide publikoak kudeatzen ditugunok oso garbi izan behar dugu lehenengo aintzat hartu beharrekoak pertsonak direla, kasu honetan, zumaiarrak. Zorionez, ekonomia oro har ondo doa eta horrek baliabideak dakarzkigu. Gure obligazioa da baliabide horiek gizarteari bueltatzea, batik bat, zerbitzu moduan beharrak dituzten haiei; Sektore sozial ezberdinentzat bitartekoak eskaintzea modu eraginkor eta iraunkorrean, alegia, denboran mantendu eta hobetu daitezkeen moduan.

Udal gobernu baten kudeaketa ahalmena ikusten da, hein batean, erakunde ezberdinetatik diru-laguntzak lortzeko gaitasunean, gero gizartearen ongizatea bermatuko duten proiektuak gauzatu ahal izateko. Egoitza berria edota Anbulatorioa eraikiko dira hain justu, horretan borobil asmatu duzuelako. Zentzu horretan, erakundeekin elkarlana sasoiko al dago?

Noski. Eskumen guztiak ez dira Udalarenak, eta geurea dena kudeatzeaz gain, ezinbestekoa da harreman onak izatea bai Eusko Jaurlaritzarekin eta bai Foru Aldundiarekin horrelako azpiegiturak lortzeko. Harremana ona izan da, saihesbidea aurki amaituta izango da eta azpimarratu nahi nuke Aldundiak erakutsi duen jarrera, eraikitzeaz gain, jatorrizko ibilbidea hobetzeko orduan. Osakidetza Osasun Zentroa eraikitzen ari da, Udalak horretarako lurzorua lortu eta laga ostean. 109 plazako pertsona nagusientzat Egoitza, Odietako plana finantzatzeko Gasteiztik lortutako dirua, eta beste hainbat eta hainbat gauza erakunde arteko lankidetzari esker egin da. Besteak beste, EAJ-PNVko gizon eta emakume guztiak lan egiten dugulako, bakoitzak bere lekutik, Euskadi hobetzeko, eta hemen, Zumaia hobetzeko.

Alabaina, etxebizitzaren prezioa da gaur egungo arazo kezkagarrienetako bat. Zumaian babestutako etxebizitzen tasa inguruko udalerrietakoa baino handiagoa da. Ari al da arazoa baretzen?

Hala da. Jendeak duen arazo nagusia horixe da, bai hemen Zumaian, eta bai beste toki guztietan. Guk urte asko daramatzagu jada etxebizitzaren inguruan politika serioa egiten. Babestutako etxebizitzak egiteko aukera ematen duen prezioan erosiz lurzorua eta etxebizitza publikoak eraikiz. Gure formulak bi osagai ditu: borondate politiko sendoa eta, frogatuta geratu den bezala, Zumaia Lantzen S.A. bezalako kudeaketa tresna eraginkorra. Badira gehiago, baina errealitateak erakutsi du gureak, gainontzeko toki gehienetakoak baino, askoz ere emaitza hobeak eman dituela.

Dirua behar da, denbora asko, borondate tinkoa eta sekulako jakituria gauzak ondo egiten, babestutako etxebizitza parke on bat lortzeko. Ez dago miraririk. Beste kontu bat da arazoa konpontzea. Hitz potoloak dira horiek. Baina ahal dugun guztia egiten dugu: lau urtetan babestutako 270 etxebizitza esleitu ditugu eta datorren legealdian beste hainbeste esleitzeko urratsak ematen ari gara.

Azkenetako batzuk Oikian ari zarete eraikitzen. Auzoa biziberritzeko neurrietako bat?

Duela urte batzuk, oikiarrek garbi utzi ziguten Oikian eraikitzen ez zela zenbat urte ziren eta Oikian bizitzen jarraitu nahi duten Oikiako gazteek horretarako aukerak izan behar dituztela jabetu ginen. Aurkitu genuen formula bukatzear dauden BOEen eraikuntza hitzartzea izan zen. Hasieratik ikusi genuen oikiarrei lehentasuna eman behar zitzaiela etxebizitza horiek esleitzerakoan, beste udalerri batzuetan identitate indartsuko auzoetan egin den moduan, gainontzeko zumaiarrei aukera hori ukatu gabe. Eta horretaz ari garela, batzordean gaia jorratu zenean, ezker abertzaleak argi utzi zuen bere jarrera: oikiarrei lehentasun guztiak ezeztatu. Harritu egin gintuen erabaki haren irmotasunak, batik bat, oikiar izatearen babesle handiak balira bezala agertzen direlako.

Zumaiaren irudia aldatzen doa. Saihesbidearen eraikuntzak aldaketa handiak ekarriko al ditu?

Dudarik gabe. Konturatu ez arren, errepidearekin denok herria bitan banatzeko joera dugu. Saihesbideak Zumaiaren bi zatiak batuko ditu zeren gaur egun N-634 errepidea dena kale luze eta atsegin batean bihurtuko da, barne trafikoa baino hartuko ez duena, kamioirik gabekoa, espaloi zabalekoa, bidegorriarekin eta aparkalekuekin. Zalantzarik gabe, herriarentzat hobekuntza nabarmena ekarriko du.

Garapen iraunkorraz asko hitz egiten da. Zenbateko balioa ematen zaio EAJ-PNVtik?

"Garapen iraunkorrak" modako kontzeptu bat baino gehiago izan behar du. Dena hobetu behar da, gure bizi-baldintzak noski, eta gizartearen bizi maila. Baina ez baliabide naturalak alde batera utziz. Eta guztiok sinestu behar dugu printzipio horretan, zeren bestela, zer gertatuko da hemendik 50 edo 100 urtera? Gure ingurunea zaindu beharra daukagu, gure airea, ibaiak, itsasoa. Berotze globala ekiditu beharra daukagu. Eta guk, Udaletxetik, lan egiten dugu hori horrela izan dadin. Baina zumaiarrek ere gauza bera sinistea beharrezkoa egiten zaigu, denok batera egin beharreko bidea baita.

Zein izan da legealdi honetako inbertsiorik onena?

Zaila da horri erantzutea... Uste dut legealdi honetan oso proiektu garrantzitsuak amaitu direla eta garrantziskoak diren beste hainbati hasiera eman: lehenengoen artean daude pertsona nagusientzat apartamentuak eta Brankako Eguneko Zentroa, Algorri edota Udaletxea. Bigarrengoen artean, berriz, Odietako plan osoa (lurrazpiko aparkalekua, Torreberri eta auzoaren birgaitzea), Alhóndiga eta, nola ez, Jadarre. Guztien finantziazioa onartuta dago eta azken xehetasunak lantzen ari dira aurki gauzatzen hasteko. Baina ezin gara egin ditugun BOEez eta beste hainbat gauzetaz ahaztu.



**"Hace falta dinero, mucho tiempo, mucha voluntad y mucho saber hacer las cosas para lograr un buen parque de vivienda protegida. No existen baritas mágicas. Otra cosa es lograr solucionar el problema. Eso son palabras mayores; pero hacemos todo lo que podemos: hemos adjudicado 270 viviendas protegidas en cuatro años y ya estamos dando los pasos necesarios para adjudicar otras tantas en la próxima legislatura."**

**"Creo que la próxima legislatura va a ser de los barrios y se van a priorizar todos los proyectos que supongan mejoras necesarias para esos barrios: la mencionada urbanización de Jadarre, que como he comentado tiene ya la financiación afectada, y la reconversión de Odieta, también en marcha. Además queremos comenzar con la rehabilitación del barrio de la Estación, y para eso tendremos que lograr el acuerdo de los vecinos, porque con la variante va a necesitar de un cambio radical."**



Zein dira datorren legealdian lehenetsi beharreko proiektuak?

Auzoen legealdia izango delakoan nago eta auzo horietan hobekuntzak burutzeko proiektuei emango zaie lehentasuna: aipatutako Jadarreren urbanizazioa, esan dudan bezala finantziazioa lotuta du, eta Odietaren birmoldaketa. Halaber, Geltokiko auzoaren birgaitzeari ekin nahi diogu, eta horretarako bizilagunekin akordio bat lortu beharko dugu zeren saihesbidearekin goitik behera aldatu beharko da. Narrondorako sarbideak eraikiko ditugu bidegorri bidez. Eta, Oikain eskola berria eta eraikin sozio-kulturala. Gainera, Santio hondartzako komunen zerbitzuei ere heldu beharrean gaude. Esan beharra dut arazo nagusiena Madrilgo Kostak proiektuan sinestea dela. Eta, noski, Puntanueta Ilan eraikiko diren 250 etxebizitza publikoak.

Zumaia-Deba Babestutako Biotopoari dagokionean, gaizkiulertu asko izan da herrian. "Zer esan dezakezu horren inguruan?

Bai, egia da. Pasa den Santelmoetan izandako "Biotoporik ez" kanpaina harrigarria izan zen. Behin eta berriz ari naiz esaten gezurra dela arrantza, ehiza eta ur-kirolak debekatuko direla dion zurrumurru hori. Dagoen afera bakarra da, eta hori argi esan zaie behin baino gehiagotan Arbustaini, Kpazi, Anaderi eta beste elkarteei, ingurua babesteko eta hobetzeko proiektu bat dagoela. Aipatutako ekintzei dagokienean, sektore bakoitzari aspalditik indarrean dauden legeak eta debekualdiak aplikatzen jarraituko da. Eta, gainera, arrantza profesionala mugatzea nahi da, kirol arrantzaleek arrantzatu ditzazketen baino arrain gehiago egoteko.

Zein da buruan duzun Zumaiaren irudia?

Geroz eta herri jatorragoa eta bizitzeko atseginagoa, jasangarriagoa, bizi kalitate handiagoarekin, ingurugiro hobeagoarekin, euskaldunagoa eta herritar guztientzat zerbitzu hobeagoekin.

EAJ PNV

# Berriro ere esandakoa egingo dugu

## Hauteskunde programa Zumaia 2007-2011

EAJ PNV

## HIRIGINTZA

### ETXEBIZITZA

- 205 BOE eta 45 etxebizitza tasatu Puntanuetan.
- 9 BOE Torreagan.
- 23 BOE Ardantzabiden.
- 20 BOEen esleipena Oikian.
- Basustan babestutako etxebizitzentzat lurzoru erostea.
- Odietan etxebizitzak prezio publikoan.
- Lokalak etxe bihurtzeko ordenantza.

### IRISGARRITASUN IRAUNKORRA

- Narrondo gainean, Ambulatorio parean, oinezko pasabidearen lanak gauzatu.
- Narrondo gainean zubi berria (Puntanueta II – Iriondo Jatetxea).
- Gernika parkeko oinezkoen zubia birmoldatu (oinezkoak eta bizikletak).
- Oinezkoentzat pasagunea N-634 errepideko zubipeetan, beilatokirantz.
- Igogailu publikoa Odietatik San Jose kalera eta San Juan Egoitzara.
- Igogailu publikoa Ardantzabidetik Udaletxera.
- Igogailu publikoa Alondigatik Mari kalera.
- Igogailu publikoa Torreberritik Arrua kalera.
- Igogailu publikoa Jadarren.
- Pantxita Etxezarreta eta Axularren birmoldaketa: espaloiak, aparkalekuak eta bidegorriak.

### HOBEKUNTZAK GURE KALE ETA AUZOETAN

- Jadarren berrurbanizazio integrala.
- Geltoki auzoan berrurbanizazio integrala.
- Berrurbanizazio integrala Eusebio Gurrutxaga eta Zuloaga plazetan joku eta jarduereetarako gune itxi batekin.
- Amaia plazaren handitzea.
- San Telmo kaleko zolaketa aldatzea.
- Amaiako Plaza ondoko kaleen berrurbanizazioa (Bidasoa, Ortega y Gasset, Baltasar Etxabe).
- Ubillos inguruaren berritzea.

### APARKALEKU BERRIAK

- 200 plazako lurrazpiko aparkalekua Eusebio Gurrutxagan.
- San Joseko aparkalekuaren handitzea.
- Lurrazaleko aparkalekuak gaur egungo N-634 errepidean.

### INDUSTRI LURZORUA

- Industri lurzoru berriaren eskaintza Oikian (Xey eta Guaskor industrialdeetan).

### HOBEKUNTZAK GURE KOSTALDEAN

- Santioko hondartza: sarbide eta zerbitzu berriak.
- Igerileku naturala eraikitzeko proiektua "haztegian" (Talaipe ondoan).
- Zumaia eta Getaria artean ibiltoki bat eraikitzeko izapideei ekin kosten zuzendaritzan.

### UR HORNIDURA

- Oikiako ur edangarriaren sare osoaren berritzea.
- Baserrietara ur hartuneak egiteko diru-laguntzen ordenantza.

## INGURUMENA

- Ingurumen teknikariaren kontratatzea.
- Aisialdi gunea Artadin (Parrokia atzean).
- Energia berriztagarrien erabilera sustatu.

### BIDEGORRIAK

- Herriguneko bidegorri sarearen zabaltzea (Puntanueta, Jadarre alde-ra e.a.).
- Narrondo auzora sarbidea bidegorri bitartez.

### BABESGUNEAK

- Urolako Interes Komunitarioko Eremua (LIC): Beduako irlen kudeaketa plana, kantauriko artadia, Santioko dunak.
- Inpernuperen ingurumen berreskuratzea.
- Narrondoko hezegunearen berreskuratzea (Ayra Durex ondoan).
- Algorriko sarbideen egokitzea.
- Talaimendin bereziki babestu beharreko lurzoruaren erosketa.
- Artadiko artadiaren baso-berritzea.
- Santio eta Kirol Portuaren arteko eremuaren berreskuratzea.

### GURE IBAIAK BABESTUZ

- Artadiren saneamendua.
- Oikian saneamendu integrala.
- Ibaien garbiketa.
- Herriguneko bigarren mailako saneamenduaren egokitzea bukatu.

### SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK

- Kontsumo arduratsua.
- Konpostgintza, birziklapena.
- Garraioa eta mugikortasun iraunkorra.
- Zuhaitz Eguna.
- Garbigunearen erabileraren sustapena.

## KULTURA

### GUNE ETA EKIPAMENDU BERRIAK

- Alondiga: kultura eta gazteria zentro berria.
- Oikia: auzoko gizarte eta kultura zentroa.
- Ubillosko sargarritasun irtenbideen azterketa.
- Forondako sotoaren egokitzea erabilera anitzetarako.
- Artxibo historikoaren birkokapena, katalogazioa amaitu, dokumentuak zaharberritu.

### PROGRAMAZIOA ETA EKINTZA KULTURALAK

- Kultur programa kontzertu eta kalitatezko ekitaldiekin osatu.
- Kultur alorreko irteerak sustatu.
- Zumaiarren partaidetzarekin festak sustatu.
- Tokiko azterketak egiteko bekak.
- Bertako erakundeei babesa ematen jarraitu.

## GIZARTE POLITIKA

- Victoriano Arrateko egoitza berriaren (109 plaza) exekuzioa.
- San Juan Egoitzako zerbitzuak hobetzeko eta egokitzeko lanak.
- Haur eta gazteei zuzendutako prebentzio programa bereziak.
- Berdinsarea: Emakumeen eta gizonezkoen berdintasunerako sarea.
- Etorkinei zuzendutako lanbideratze programak.
- Etorkinen Udal Foroaren sorkuntza.
- Lankidetza: udal aurrekontuen %0,7.

## HEZKUNTZA ETA GAZTERIA

- Gazteentzat ekitaldi programak, tailerrak, irteerak eta kanpamentuak.
- Skate-parkaren handitzea eta hobetzea.
- Haurreskola berria Bidasoa kalean.
- Ludoteka berria Torreberrin.
- Oikiako eskola berria.
- Udalerriko ikastetxeekin elkarlanean jarraitzea.

## EUSKERA

- EBPN garatu.
- Euskera lan munduan.
- Euskera merkataritzan.
- Euskera paisaia linguistikoan.
- Etorkinentzat programa bereziak.
- Alfabetatze erraztasunak.
- Udal Normalkuntza Plana.
- Bekak eta ikerkuntza lanak.
- Zumaia geroz eta herri euskaldunagoa bihurtu.

## TURISMOA ETA MERKATARITZA

- Konbentua: Alde Zaharra eta herriko turismoa indartzeko baliabide.
- Donejakue bideko aterpetxea.
- Sargarritasun plana turismo baliabideetako.
- PERCO 3: Alde Zaharra biziberritzeko plana.
- Hotela Guascorko eremuan.
- Merkataritza eta ostalaritza laguntzeko programak.

## ZERBITZUAK

- Udaltzaingo zerbitzuaren zabaltzea (gauez).
- Birziklapena osatu eta sustatu: bosgarren edukiontzia.
- Haurrentzat parke berriak.
- On-line zerbitzuen eta hiritarrekiko komunikazio bideen hobetzea.
- Hiritarren Arreta Bulegoaren abiatzea.
- Udalerriko trafikoaren azterketa.
- Bide-hezkuntza programak.
- Landa-bideen garbitzea eta mantenimendua.

## KIROLAK

- Pilotaleku berriaren exekuzio obrak.
- Itsas-kiroldegiaren handitzea.
- Surf Klubaren lokala.
- Odietaren berreskuratzea pilotaleku ireki moduan.
- Haurren igerilekuaren hobetzea.
- Kirol erakundeei eta klubei babesa handitzea.
- Oinarrizko kirolei babesa ematen jarraitzea.
- Klubekin elkarlanean, jarduera

**Continuaremos ejerciendo una política de vivienda activa y eficaz. Entre las medidas a adoptar contemplamos, entre otras, seguir con la promoción de VPOs y tasadas, ofrecer las viviendas de Odieta a precios públicos y aprobar una ordenanza que regule la reconversión de bajos comerciales en vivienda.**

**Mejorar la accesibilidad será otro de nuestros retos. Instalaremos ascensores públicos para acceder de Odieta a la calle San José y a la residencia San Juan; de Ardantzabide al Ayuntamiento; de la Alhóndiga a la calle Mari; de Torreberri a la calle Arrua y en Jadarre.**

**Zumaia dispondrá de nuevo suelo industrial en Oikia tanto para las empresas locales, como para aquellas que deseen ubicarse en nuestro municipio.**

**En nuestra apuesta por la movilidad sostenible, continuaremos ampliando la red de bidegorris hacia Puntanueta, Jadarre...**




